

## NAHI / GURA IZAN ADITZEN JOKABIDEA ADITZ IRAGANGAITZEKIN

*Nahi izan/gura izan* aditzek (eta *nahiago izan/gurago izan* aditzek ere bai, jakina) erabilera berezia daukate, gehienetan (ez beti, ordea, aditz beregain gisa ere erabil baitaitezke) beste aditz bat baitute osagarri. Aditz hau partizipio burutua denean,<sup>1</sup> ez ohi du jokabidearen forma baldintzatzen, zeren bera iragangaitza izanagatik subjektuak kasu ergatiboa hartzen baitu eta aditz laguntzaile iragankorra erabiltzen baita:

- (1) *Eneuke nai joan* betiko (J. M. Echeita, *Josecho*, 104).
- (2) Etorri zitzaien ego aize zatar ta sendoa, ta *Pagoak ez zuen beratu* eta *makurtu nai* (V. Moguel, *Ipui onak*, 79).
- (3) Uste dozu *gurako dabela nigaz ezkondu?* (J. M. Echeita, *Josecho*, 222).
- (4) Ez *neuskio* neure usteari *etsi nai*, neurea dala ta beste barik (D. Agirre, *Kresala*, 7).
- (5) Pekatu eginda, ez *dau ezautu gura* pekatutzat, ez *dau autortu gura* (F. Bartolome, *Icasiquizunac II*, 240).
- (6) *Bere ugazabak be ezaban atara gura* okerretik, barrero alde egingo ete eutson bildurrez,... (Kirikiño, *Abarrak*, 55).
- (7) Gurekin sarri *oztopo* edo *egin gurako zenduke*, (...) (B. Gandiaga, *Elorri*, 75).
- (8) Konortera etorri zanian, *jaten eta edaten emon gura ixan eutsoen* (J. Altuna, *Ipuinak*, 97).
- (9) Segur, *jandarmek nahiagoko zuketela* serora edo fraide gaixo zombait *preso hartu*, Lohilakaten orde (J. Barbier, *Su-pazter chokoan*, 148).
- (10) Handiagoko zerbait *egin nahiago zuen*: (...) (J. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 113).
- (11) (...) ta bestiak erantzutson (...) *gurago ebalu* bizia *galdu* a ilten ikusi baño (Kirikiño, *Abarrak II*, 25).

Halere, aditz osagarria iragangaitza denean eta datiboduna, orduan NOR-NORI saileko adizkera datibodunak erabiltzen dira beti *nahi izan* aditzarekin:

- (12) (...) *jarraiki nahi natzaio* (J. Haraneder, *Testament Berria*, 34).
- (13) Ohi nola aspaldian *nahi etzait minzatu*, zerk anderehantu duien behar dizit galdatu (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 160).
- (14) Aurrak deadar egin zuen, eta pozaren indarrez begi biak *irten nai zitzaizkan* (G. Arrue, *Santa Genobebaren bizitza*, 72).
- (15) Zalko *jarri nai zitzaizkion* mutilkoak bizkarrean abere gazteari (T. Agirre, *Uztaro*, 241).

Erabilera orokor hauetaz gain beste erabilera bat ere aipatu behar dugu: datiborik ez izanik aditz osagarria iragangaitza denean, aditz laguntzailea ere iragangaitza izaten da maiz Iparraldeko testuetan. Jokabide hau zubererazko tradizioan kasik bakarra da; Hegoaldeko tradizioan, aldiz, oso autore gutxiren lanetan baizik ez da agertzen:

- (16) Desertiala *juan nahi bazira*, arren zuaza, oi, bena berhala (*Prima eijerra* kantua, Sallaberryk bildu kantuak, 54).
- (17) Dominika Haritchabalet etzen ezbaiekoetarik: *Nahi niz izan apez eta apez saintü*, erran zian, lehen egünetik (J.B. Constantin, *Haritchabalet Jaun apezaren gainen*, 16).

<sup>1</sup> Partizipio burutua agertzen da aditz osagarriari dagokion subjektua eta *nahi / gura izan* aditzari dagokiona bera denean. Ikus *OEH* (XII, 674).

- (18) XLVI, Eginen dut ene gisa, harek egiten dian bezala, libertitu nahi niz, ja ene lagun ekin (*Astolasterrak*, 16).
- (19) Materia eder batez nahi niz egün minzatü (*La Pastorale souletine. Édition Critique de Charle-Magne*. Beñat Oyharcabal; 1991, Donostia, 1490. bertsua, 364. or.).
- (20) Ni-ere altxatu nahi naiz lurretik zugana (Duvoisin, *Liburu ederra*, 14).
- (21) Nere gezurrak utzirik, Jainko hortaz orhoitu nahi naiz hemendik harat (Barbier, *Supazter choxokoan*, 162).
- (22) Erre nai ezpazara aragijaren pensamendu loijetan, itxi adiskidetasun ori (Astarloa, *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*, 2, 138).
- (23) Galdetu zioten ea gizon arekin *joan nai zan* (Lardizabal, *Testamentu Zarreko ta Berriko kondaira*, 422).

Honenbestez honakoa da Euskaltzaindiaren gomendioa:

1. *Nahi izan / gura izan* aditzak (*nahiago izan / gurago izan* aditzak ere bai) aditz laguntzaile iragangorarekin erabiliko dira, ondoan agertzen den partizipio burutua edozein motatakoa delarik, baita iragangaitza denean ere:

- a) *Barre egin gura zuen*
- b) *Egia esan nahi diogu*
- d) *Ez du isildu gura*
- e) *Bihar etorri nahi du*

• **du-aditza + nahi / gura** ==> [aditza] + nahi / gura + du-saileko aditz laguntzailea

• **da-aditza + nahi / gura** ==> [aditza] + nahi / gura + du-saileko aditz laguntzailea

Gomendio orokor horrek baditu hedadura desberdineko bi salbuespen, *nahi izan* aditzari dagozkionak:

A. *Nahi izan* aditz iragangaitz batekin agertzen den kasuetan datiboarekiko komunztadura enplegatutako behar bada, *zaio*-saileko jokabidea erabiliko da beti:

- a) *Garrantzi handiko gai batez mintzatu nahi natzazu*
- b) *Lagunak ere ikustera etorri nahi zitzazkidan*

• **zaio-aditza + nahi** ==> [aditza] + nahi + zaio-saileko aditz laguntzailea

B. Ipar ekialdeko euskalkietan aditz iragangaitzekin *da* laguntzailea ere erabiltzen da zenbaitetan:

- a) *Joan nahi zara*
- b) *Orain zurekin mintzatu nahi naiz*

Erabilera hau ere ez da gaitzesten:

• **da-aditza + nahi** ==> [aditza] + nahi + da-saileko aditz laguntzailea

(Euskaltzaindiak, 2001eko otsailaren 23an, Lekeition, eta maiatzaren 25ean, Donostian, onartua)